



H IRUTXULOKO
HITZA

EUSKARALDIA

DONOSTIAN

2025

Produktu berriak gure dendan!



Paula Estevezek egindako diseinuarekin

Euskaraldia, lehenengo urrats gisa

Hemen da Euskaraldia, laugarrenez. Zein rol hartuko duzue, *ahobizi* ala *belarriprest*? Zuen lantokiak edo kultur edo kirol elkarteak entitate gisa izena eman du? Arigunea sortuko duzue zuen entitatean? Modu batean ala bestean parte hartu, hori da, hain zuzen ere, garrantzitsuena: parte hartzea. Lehen hitza euskaraz egitea, egunero euskarazko elkarrizketak edukitzea sustatzea, ingurukoak euskaraz hitz egitera animatzea, ulertzen ez duzuna galdetzea, zure auzoko euskara batzordeak antolatutako jardueretan parte hartzea, eta abar. Horrela, euskararen normalizazioaren aldeko zure ekarpen txoa egingo duzu.

Eta hori bereziki garrantzitsua da gaur egun, euskara hamarnaka eraso pairatzen ari den garaiotan. Euskararen eta, ondorioz, euskaldunon aurkako oldarraldia ez da berria eta hamaika forma izan ditu, baina azkenaldian hartu duen bidea bereziki kezagarria da. Izan ere, hamarkada askoko borrokari esker lortutako eta ziurtatua zeudela zirudien zenbait eskubide kolokan jartzen ari da, euskalgintza borroka eta erantzun eredu berriak bilatzera behartuz.

Hamaika egunez lehen hitza euskaraz egiteak ez du arazo hori konponduko; Euskaraldia ez da formula magiko bat. Baina euskararen normalizazioaren aldeko borrokan sakontzen du ariketa sozial horrek. Hamaika egun horietatik harago, euskara erabiltzen jarraitzea du helburu Euskaraldiak. Eta, nork egingo dio aurre oldarraldiari euskaldunek ez badiote aurre egiten? Gero eta gehiago izan eta kontzientziatuago egon, orduan eta indartsuagoak izango gara.

«Bada garaia noizbait dezagun guda hori gal edo irabaz» dio abesti ezagun eta maitatu batek. Bada garaia, bai, euskara izateko euskal herritar guztion hizkuntza. Izan dadila Euskaraldi hau, bada, guda hori irabazteko lehenengo urratsa.



 Ametzagaña, 19, behea, 20012 Donostia

 943-46 72 36

 donostia@hitza.eus

Argitalpen data: 2025eko maiatza

Lege Gordailua: SS-226-05

Testuak: Erredakzioa

Argazkiak: Erredakzioa

Diseinua: Oier Arribas Ciria

Publizitatea: Aizpea Aizpurua Arroio
aaizpurua@hitza.eus · 688-60 71 08

Irutxulo
.hitza
.eus



«Euskaraldiko hasierako irrika berpiztu nahi dugu»

HAIZEA SOLAGURENBEASKOA ALKORTA

Euskaraldiko Gipuzkoako sustatzailea

Euskaraldia maiatzaren 15ean hasiko da, eta hamaika egunez 'belarriprest' eta 'ahobizi' txapak jantziko ditugu parte hartzaileok. Ekimena aurrera ateratzeko, aldiz, pertsona askok egin dute lan aurrez, eta horietako bat da Haizea Solagurenbeaskoa Alkorta (Gros, 1989). Euskaraldia sustatzeaz arduratzen da Gipuzkoan, herriz herri Euskaraldiko batzordeak harremanetan jartzen, zalantzak argitzen, zein informazio teknikoa eskaintzen.

✍ Garazi Etxaniz Idarreta

Zein bilakaera izan du Euskaraldiak lau edizioetan zehar?

2018. urtean, Euskaraldiaren lehenengo edizioa egin zenean, proiektuak berak zituen espektatiba guztiak gainditu ziren. Ekimen berriak elkarrekin aurkeztu zituen

euskararen arlo soziala eta instituzionala, eta une hartan irrika eta ilusio berezia sorrarazi zuen. Ondorengo edizioetan, ordea, makalaldia izan genuen, pandemia garaia eragin zuzena izan baitzuen. Izan ere, Euskaraldia

ariketa soziala da, eta pandemiak distantzia soziala ekarri zuen.

Hala ere, laugarren edizio honetan gure asmoa ez da datu kuantitatiboetara iristea: Euskaraldiko hasierako irrika berpiztu nahi dugu. Hamaika eguneko ariketa soziala gozamina izatea nahi dugu.

Aurten zein berrikuntza dakartzake ekimenak?

Ariketa, oinarrian, berdina da: hamaika egun iraungo du, eta *belarriprest* zein *ahobizi* rolak mantenduko dira.

Kanpora begira, Euskaraldia egingo den data da aldaketarik nabarmenena. Aurreko edizioak azaroan eta abenduan egin ziren, Euskararen Eguna zela eta. Aldiz, udaberrira ekarri dugu aurten ekimena, eta ez da kasualitatea, oso kontzienteki hartutako erabakia baizik. Gure helburua ariketa soziala plazara ateratzea da, kolektiboki egiten dugun ariketa ikusgarria izan dadin. Udaberri garaian eguraldiak hobera egiten du, albo batera utz dezakegu neguko goibeltasuna, eta ekintzak espazio itxietatik kanpo egin ditzakegu.

Barne lantaldeari begira, euskararen alde egon daitezkeen



Tabakaleran aurkeztu zuten Donostiako Euskaraldia, martxoan. INAXIO ESNAOLA

“

«Udaberri garaian, albo batera utz dezakegu neguko goibeltasuna, eta ekintzak espazio itxietatik kanpo egin ditzakegu»

profil desberdinak bilatzen saiatu gara, horiek ere Euskaraldia antolatzen lagun dezaten. Hau da, orotariko aktibisten parte hartzea bilatu dugu, horrek sendotasuna ematen baitio ekimenari. Egokia eta erraza da euskara batzordeek ekimena antolatzea, baina, uste dugu, esaterako, euskaldun be-

riek ere antolakuntzan parte hartu behar dutela; izan ere, euskara transbertsala da eta euskaldun berrien kasuan ere existitzen da euskararekiko harreman bat.

Erakundeek ere Euskaraldian parte hartzeko aukera dute.

Bai. Esan bezala, ariketa kolektiboa da Euskaraldia. Norbanakoena ez ezik, eragile eta erakundeena ere bada: dantza taldeena, hedabideena, aisialdi taldeena, enpresena, administrazioarena, eta, oro har, jendar-tean eragina duen agente guztiena. Horiek guztiek, bakoitzak bere erara, erantzukizun handia dute euskara hauspotzerako orduan.

Batetik, erakundeek beraien neurri propioak har ditzaketelako, hau da, ohiturak aldatzeko erabaki kontzienteak har ditzaketelako; bestetik, norbanakoen bilgunerako espazio direlako. Astean bi orduz dantza taldeen kasuan, egunean zortzi orduz enpresen kasuan... nola edo hala, zutabe garrantzitsu bihurtzen dira norbanakoen bizitzan, eta, ondorioz, eragin zuze-na dute hizkuntza portaeretan. Horregatik sustatu nahi dugu haien parte hartzea, eragileak euskararen alde urratsak egitera anima daitezen.

Euskaraldia ekimen «sinbolikoa» eta eragin sozial errealik ez

EUSKARALDIA
BADATOR...
ANIMA ZAITEZTE!!
HERRI AMETSA
IKASTOLA
 www.herriametsa.eus DONOSTIA
 Guardaplata bidea, 28





'Ahobizi' eta 'belarriprest' txapak. INAXIO ESNAOLA

duena dela esaten duenik ere bada. Zer erantzungo zenieke?

Iritziak iritzi, eta orokortu gabe, Euskaraldiak indarguneak eta ahulguneak ditu, eta nik indarguneetan jartzen dut fokua. Iruditzen zait ekimenak aukerak mahaigaineratzen dituela euskarari praktikan jartzeko. Erronkak plazaratzen ditu: lehen hitza euskaraz egitea, euskaraz dakienarekin euskaraz hitz egiteko hautua hartzea, erdaraz hitz egin

arren euskaraz dakienarekin euskaraz egitea... Hizkuntzaren hutsuneak mahaigaineratzen ditu, eta, aldi berean, tresnak eskaintzen ditu hutsune horiek gainditzeko, modu atsegin eta kolektiboan.

Ahobizi zein belarriprest txapen laguntzarekin eta inor interpelatu gabe, ekimenak pertsonak eta erakundeak gonbidatzen ditu hizkuntza aldaketa egitera, eta, gainera, urte osoan zehar

mantendu daitekeen ariketa da. Badakigu aldaketa posible dela, neurketek baitiote Euskaraldian euskararen erabilera areagotu egiten dela. Gauza horiek kontuan izanik, eta kritikak ulertu ditzakedan arren, ekimenaren indarguneei balioa eman behar diegula uste dut.



«Uste dut formula bakarrak ez duela betiko balio izango. Errealitatera egokitu behar gara»

Funtzionatuko du Euskaraldia- ren formatuak, demagun, hamar urte barru?

Galdera potoloa. Pertsonalki, uste dut formula bakarrak ez duela betiko balio izango. Errealitatera egokitu behar gara eta proposamen berriak jarri behar dira mahai gainean. Gure itxaropena da euskararen erabilerak datozen urteetan hobera egitea, eta, hala, hamar urte barru euskararen aldeko ekimenak bestelakoak izatea. Hori lortzeko egiten dut lan, gaurtik hasita.

Ez dakit Euskaraldiak izena mantenduko duen, ala zerbait desberdin bilakatuko den, baina asmoa beti izango da unean uneko errealitateari erantzuna emango dioten proposamenak mahaigaineratzea. ●

Euskara eroso bizitzeko



DONOSTIA

ANTIGUAKO AEK

Erregezain, 22

943-21 80 88 · antigua@aek.eus

AMARA BERRI AEK

Ordoñez, 7 (ARCCO parean)

943-47 45 92 · amara@aek.eus

GROSEKO IRRINTZI AEK

Izutueta, 3, behea

943-32 76 11 · gros@aek.eus

TABAKALERA MAIATZA




TABAKALERA

HAMAR URTE

2015

2025

ERAKUSKETAK



Otsailak 21
→ Ekainak 08

VISIONES CUÁNTICAS

Erakusketa-aretoa
(1. solairua)

Maiatzak
17, 21, 31

Bisita gidatuak



Apirilak 10
→ Uztailak 27

SITU-AKZIOAK ANNA IRINA RUSSELL

birika bezain elastikoa

Erakusketa-aretoa 2
(1. solairua)

Larunbat eta igandeak | 11:00
Saio dinamizatuak

ZINEA

22

Osteguna | 19:00
KONTATUTAKO ZINEA
PELLO GUTIÉRREZ
ZAZPI TERDI
ERREPLIKA

24

Larunbata | 19:00
JO TA KE
AITZIBER OLASKOAGA

29

Osteguna | 19:00
**¿QUÉ HARÁS CUANDO EL
MUNDO ESTÉ EN LLAMAS?**
ROBERTO MINERVINI

31

Larunbata | 19:00
LOS MALDITOS (THE DAMNED)
ROBERTO MINERVINI

HAURRAK

17

Larunbata | 17:00
ELEKTRO FESTA #3
TELMO TRENOR

BESTELAKOAK

Maiatzak

10, 24

Larunbatak | 9:30
YOGA SAIOA ETA BRUNCHA

15

Osteguna | 19:00
NOEN
SOLASALDIA

Kontsultatu
programazio
guztia





«Atzerritarrei euskarazko hiztegi txikiak banatuko dizkiegu»

ESTHER IRIGARAI ARRATE

Aquariumeko zuzendari kudeatzailea

Norbanakoek ez ezik, zenbait eta zenbait erakundek ere parte hartuko dute Euskaldian. Ahobizi eta belarriprest txapak janzteko prest daude, hala, Aquariumeko langileak. Esther Irigarai Arrate (Lasarte, 1970) Aquariumeko zuzendari kudeatzaileak azaldu du euskararen erabileran urratsak egiten jarraitu nahi duela erakundeak, beste urte batez, bisitarien zein barne lantaldearen hizkuntza joerak aldatzeko asmoz.

📍 Garazi Etxaniz Idarreta

Zergatik erabaki du Aquariumek Euskaldian parte hartzea? Zein da zuen motibazioa?

Aquariuma duela mende bat baino gehiago sortu zen, eta, geroztik, euskal itsas historiari eta, oro har, tradizioei zein euskal kulturari buruzko zabalkundea egin du erakundeak. Zentzu horretan, euskararekiko kezka beti izan dugu presente. Are gehiago, Donostiako portuan lehen arrantza eskola sortu genuenean gai guztiak euskaraz eman ziren, hain zuzen, gure arrantzaletan gehienek hitz egiten zuten hizkuntza horixe zelako.

Aquariumetik bisitari asko igerotzen dira egunero-egunero, bai bertakoak, bai atzerritarrak, eta horragatik gure ardura da gure hizkuntza ezagutaraztea, baita gure kultura ere.

Bisitari horiei begira, nola parte

Tel.: 943-27 97 96

Bazkariak

KATA
ecia

Gora euskara!

**IPURU S. L.
ERAIKUNTZAK**

Mundaiz bidea 10, 2. solairua - 24. bulegoa
20012 DONOSTIA
Tel.: 943-42 41 21 · www.ipuru.com

hartuko du Aquariumek Euskaraldian?

Alde batetik, bezeroaren arretaz arduratzen diren langile guztiek eramango dute soinean *ahobi-zi* edo *belarriprest* txapa; hori ez ezik, kartelak jarriko ditugu Aquariumen, zeintzuek bisitariak Euskaraldian parte hartzera animatuko dituzten.

Bestalde, aurtan Euskaraldia- ren totem bat jarriko dugu, eta egun horietan Aquariumera bisita egiten duten atzeritarrei euskarazko hiztegi txikiak banatuko dizkiegu. Hiztegi horiei esker ahalbidetu nahi dugu bisitatzen gaituzten pertsonen euskarazko hitz batzuk erabiltzea.

Horrez gain, Aquariumek definituta dauka bere hizkuntza politika: lehenengo agurrerako hizkuntza beti izango da euskara, eta bisitariarentzako prestatutako seinaleztapen sisteman ere euskara da lehen hizkuntza. Neurri horiei esker, uste dugu euskararen erabilera normalizatzen dugula, eta, hala, bisitariak haren existentziaz jabetzen direla.

Eta lantaldeari begira?

Normalean, lantaldeko pertsona batek, Mireia Artetxek, dinamizatzaile lanak egiten ditu, eta bera arduratzen da ekintzak dinamizatzeaz. Aurten, ordea, dinamizatzailerik gabeko Euskaraldia egingo dugu, proba moduan.

Nolakoa izan da zuen esperientzia aurreko edizioetan? Ikusi duzue aldaketarik hizkuntza ohituretan? Aurreko urteetako esperientzia



Erronka pertsonalak hartzean datza Euskaraldia. © JOSEBA PARRON

oso positiboa izan da guretzat, Aquariumeko lantaldea oso aktiboa izan baita urtero Euskaraldiari dagokionez. Batik bat, ekimena baliagarria izan zaigu euskaraz ez dakitenekin gaztelaniaz hitz egiteko dugun joera aldatzeko. *Belarriprest* txapa eramateak lagundu egiten gaitu pertsona horiengana jotzean lehen hitza euskaraz egitera bultzatzen gaituelako. Eta hori, urtez urte, gure ohituretan txertatu da.

Euskaraldiak ofizialki irauten dituen hamaika egunez harago, urtean zehar nolako eragina du ekimenak Aquariumean?

Kanpora begira, bisitarien dagokionez, aurrez aipatutako hizkuntza politika du Aquariumek, eta hori urte osoan zehar mantentzen den zerbait da, Euskaraldiko egunez haratago.



«Euskaraldiak asko laguntzen gaitu urte osoan zehar, euskaraz hitz egin ez, baina ulertzen dutenei euskaraz egiten diegulako»

Beti saiatuko gara lehen agurra euskaraz egiten, lehen hizkuntza gisa euskara hautatzen.

Baina, esango nuke are eragin handiagoa duela barne taldeari dagokionez. Euskaraldiak asko laguntzen gaitu urte osoan zehar, esan bezala, euskaraz hitz egin ez, baina ulertzen dutenei euskaraz egiten diegulako; pentsatu gabe lehen hitza gaztelaniaz esateko dinamika hausten laguntzen digu Euskaraldiak. ●



Urrats
euskaltegia



www.urrats.eus 943-46 55 93 Karlos I.a, 10 - Donostia





«Espero dugu atleten artean Euskaraldiko gure kamisetek arrakasta edukitzea»

RAMON GOIKOETXEA ABADIA

Gipuzkoako Atletismoko Federazioko presidentea

Entitateen parte hartzea ezinbestekoa da Euskaraldian, euren langile, kide edota bezeroentzat euskaraz lasai aritzeko gune bat eskaintzen dutelako, neurri handiagoan edo txikiagoan. Ildo horretatik, Gipuzkoako Atletismo Federazioko presidente Ramon Goikoetxea Abadiak argi dauka Euskaraldia baliatu dezaketela euren atleten hizkuntz ohiturak aldatzeko.

📷 Gorka Correyero Llamas

Gipuzkoako Atletismo Federazioak Euskaraldiko beste edizioetan parte hartu du?

Ez, entitateak lehenengo aldiz parte hartuko du Euskaraldian. Anoetako estadio txikian gaztelania asko erabiltzen dute euskaldun askok, beren etxean eta herrian euskaraz egiten duten arren. Horri buelta bat emateko izena eman dugu, horixe baita gure kezka. Ohitura horri haustura eman edo aldaketa bat eragin nahi dugu euskara indartzeko helburuarekin, eta Euskaraldia aukera ona dela pentsatu dugu. Hori dela eta, kamiseta batzuk prestatu ditugu, oraindik ez daudenak salgai. Gure webgunean salgai egongo dira kamiseta horiek, baita Donostiako Maratoiko webgunean ere. Kamisetek, federazioko logoaz gain, *ahobizi* edo *belarriprest* logoa izango dute aurrealdean. Atzealdean berriz, Euskaraldiko logoa eta leloa izango dituzte. Horrek lan gehiago suposatzen du, baina espero dugu batzuk saltzea.

Kamiseten harira, bi rolei garrantzi bera emango diezue?

Bakoitzak nahi duen rola izango du, euren esku uzten ditugu bi kamisetak. Nik uste dut hogeit pertsona kamisetarekin ikusteak interesa piztuko duela. Espero dugu atleten artean Euskaraldiko gure kamisetek arrakasta edukitzea. Gutxi batzuk badira ere, horiek euskararen aldeko jarrera erakustea ezinbestekoa da. Txapa baina ikusmira handiagoa du

E
N
B
A
T
A



Kale Nagusia, 14 - DONOSTIA
943424797 - 609314962
enbatadenda@gmail.com
www.enbata.eus

Euskaraldiko 'ahobizi' txapa bat.  JOSEBA PARRON

«Aurreko legealdiko kezka euskara indartzea zen, eta Euskaraldiarekin egoerari buelta bat eman nahi diogu»

kamiseta batek, ikusiko dugu zer nolako erantzuna duen.

Kirolarien artean euskarak zer garrantzi du?

Guk Kirolene ikastaroaren bitartez monitore guztiei euskaraz hitz egiteko deia zabaltzen diegu. Monitoreek euskaraz jakin arren, batzuk gaztelaniara jotzen dute. Gure atletek pistan kaleko giro bera

dute, kalean euskara erabiltzen dutenek giro euskaldunagoa dute, batez ere, Gipuzkoako herritakoek, Tolosakoek, Azpeitikoek edota Ordiziakoek. Donostiakoek, ordea, erabilera eskasagoa dute.

Euskaraldiarekin egoerari buelta emango diezuela uste duzue?

Bai, ezinbestekoa da. Badirudi euskara zaharren hizkuntza bihurtu dela. Nirekin, denek edo gehienek, lehenengo hitza ez ezik, orokorrean, euskaraz hitz egiten dute. Monitore gazteekin, ia kontrakoa da. Nahiz eta etxeko giroa erabat euskalduna izan haien herrietan, hemen beraien artean ez dute euskaraz hitz egiten.

Zuen kasuan, Euskaraldiaren

moduko ekimenek zer garrantzia dute?

Orain arte beste edizioetan entitate gisa ez dugunez parte hartu, ez dugu esperientzia handirik izan. Gure artean eta sare sozialetan euskara gehiago erabiltzen saiatzen gara. Kezka batzuk izan ditugu euskarak behar duen presentzia ez izateagatik, baina, gaur egun, webgune osoa elebiduna da. Hori da gure esku dagoen bakarra. Horretaz gain, Anoetako pistako egoera ez dago gure esku soilik, klubaren esku ere badago. Gure atletak direnez, euren artean lehen hitza euskaraz izaten ahalegintzen gara. Gure artekoa indartu dezakegu, federazioak ezin du Donostiako giroa aldatu. Norbanako bakoitzak euskararen alde bere kabuz egiten badu, horrek aldaketa eragin lezake.

Euskaraldiaz gain, urtean zehar euskararen aldeko beste ekimenik antolatzen duzue?

Federazioak badu euskararekiko konpromisoa eta mezuak eta berriak zabaltzeko euskara lehenesten dugu, gure hizkuntza baita. Aurreko legealdiko kezka euskara indartzea zen, eta Euskaraldiarekin egoerari buelta bat eman nahi diogu. Ez da gure lana soilik, Donostiako beste atletismo klubena ere bada. Donostiako euskararen egoera badakigu zein den, eta federazioak, klubekin hitz egin ondoren, beste irtenbide bat pentsatuko du gure atletek Euskaraldiaren harira euskararekiko beste ikuspuntu bat izan dezaten. ●

MariaReinaEskola

Hegan egiteko hezkuntza eta hegoak.

EUSKARALDIAREKIN!

AHOA BIZI ETA BELARRIA PREST

Ametzagana 58 • Egia • 20012 • Donostia
T 943 27 15 96 / mariareinaeskola.com





Euskararen erabilera aktibatzeko mugimendu soziala

Euskaraldia euskara ulertzen duten hiztunen hizkuntza ohiturak aldatzeko mugimendu soziala da, Euskal Herri osoan eragiteko sortua. Mugimenduak herritarren hizkuntza praktikak aktibatu eta euskararen erabilera handitu nahi du, eguneroko harremanetan euskara lehenetsiz eta 11 eguneko praktika sozial masibo bateratu baten bidez.



Euskaraz ulertzen duten guztiekin euskaraz egiten dut, une oro. Kideek euskaraz ulertzen ote duten ez dakidanean, lehen hitzak, beti, euskaraz egiten ditut; euskaraz ulertzen badute, euskaraz jarraitzen dut.



Aldiro erabakitzen dut euskaraz noiz eta norekin egin. Agian, beti ez dut euskaraz egingo ulertzen duten guztiekin, baina euskara dakitenek niri euskaraz hitz egitea nahi dut, eta horixe eskatzen diet modu esplizituan.

ENTITATEAK

Edozein entitatek hartu dezake parte Euskaraldian: tabernek, dendeak, bestelako lantokiek, kultur eta kirol elkarteek, eta abar. Hiru konpromiso hartu behar dituzte: entitateko kideak belarriprest eta ahobizi rolak hartzera gonbidatzea, eskura jartzea euskararen erabilera sustatzeko pres-takuntza eta baliabideak eta parte hartzea ikusgarri egin —espazioak apaindu, txapak banatu, Euskaraldiaren zabalkundea egin, eta abar—.

Nahi izanez gero, hala ere, konpromiso gehiago hartu daitezke: ariguneak sortzea, bilerak eta barne eta kanpo komunikazioak euskaraz garatzea eta euskararen presentzia indartzeko beste neurri batzuk hartzea —hizkuntza harrera planak, barne politikak, eta abar—.



Sara Zozaya
Musikaria

HAMAI KAKOA



Jose Miguel Aierza
Adegiko zuzendari nagusia



Maialen Barcena
AEK-ko euskaltegiko irakaslea



Jon Garaño
Zinema zuzendaria



Laura Chamorro
Moda aditua eta aurkezlea



Borja Agote
Surflaria eta youtuberra



Edurne Ormazabal
Tabakalerako zuzendaria



Xabier Zabaleta
Aratz jatetxeko sukaldaria



Josebe Amondarain
Ikasbide elkarteko idazkaria



Unai Ribera
DJ-a



Txurdin
Realaren maskota

Kutxabank Euskaraldiarekin

2025EKO

MAIATZAREN 15ETIK 25ERA

EUSKARALDIA

*Elkar mugituz
egingo dugu*



kutxabank
Benetan.

Eta zuk,
DONOSTIAN
EUSKARA
babesten al duzu?

 **REALE ARENA**



 **IRUTXULO KO
HITZA**

bagera



«Euskaldun guztiok bateratzen gaituen elementu bakarra da euskara»

LAURA CHAMORRO ETA BORJA AGOTE

Donostiako Hamaikakoko kideak

Donostiako Euskaraldiko Hamaikakoaren parte dira Laura Chamorro kazetaria (Usurbil, 1987) eta Borja Agote surflaria (Donostia, 1992); 'ahobizi' gisa Chamorro eta 'belarriprest' gisa Agote. Ekimenaren irudi izateak dakarrenaz eta euskararen erabileraz mintzatu dira.

📷 Nagore Garmendia Artano

Nola jaso zenuten Hamaikakoan parte hartzeko proposamena?

Laura Chamorro (L.C.): Oso pozik; euskararekin harremana duen zerbaitetarako deitzen didaten lehen aldia da, eta pentsatu gabe esan nien baietz. Nire haurtzaroa, gaztaroa, etapa garrantzitsu horiek, giro euskaldun batean bizi izan ditut, eta asko hunkitzen nau honek.

Borja Agote (B.A.): Sorpresa bat izan zen, baina pozik. Etxean betidanik hitz egin dugu euskaraz, eta horrelako zerbaitetarako nirekin kontatzeak ilusio handia egiten dit.

Nolakoa izan da zuen harremana euskararekin orain arte?

B.A.: Nik gero eta harreman handiagoa daukat; Bartzelonan bizi izan nintzen eta munduan

zehar ere ibili naiz, eta urte asko eman nituen euskaraz hitz egin gabe. Asko galdu nuen euskaraz hitz egiteko ohitura, eta, orain, Donostiara itzuli naizela, gero eta gehiago hitz egiten saiatzen naiz. Lanean hitz egiten dut, lagun batzuekin ere bai eta, zorionez, etxean ere bai. Euskaraz hitz egiten dugunok konexio berezi bat sortzen dugu gure artean, eta polita izateaz gain, urraezina da.

L.C.: Nire euskararen erabilera asko murriztu da azken urteotan, *El Diario Vasco*-n egiten dudalako lan; Espainia osoko diseinatzaileekin ere harremanetan nago, eta, askotan, gehiago erabiltzen dut ingelesa, euskara baino. Baina betikoeekin euskaraz hitz egiten jarraitzen dut, eta, beraz, ez duzu euskara galtzen, erritmoa baizik. Euskara ikasi nuen gaztelania baino lehenago, eta niretzat polita izan da, nola-bait, aitzakia honekin lehenago bizitzara bueltatzea.

Ohitura bat ala jarrera bat da 'ahobizi' izatea?

L.C.: Duela hogeitau urte, niretzat ohitura bat zela esango nuke; orain, jarrera bat da. Orain, konurtatu naiz gehiago egin beharko nukeela euskaraz, eta, horrek, jarrera aldaketa bat dakar. *Ahobizi* rola hartzen duen pertsona batek, orokorrean, ohitura bat duela

esango nuke, euskaraz hitz egiten duelako nahi eta nahi gabe.

Zein da zuen erronkarik handiena Euskaraldian?

B.A.: Ohitura berreskuratzea. Ikasketak gaztelaniaz eta katalanez egin nituen, eta nabaritzen dut asko galdu dudala. Nire erronka, oraintxe, jarrera aldaketa bat egitea da: asko hitz egitea, asko entzutea, eta neukan maila hori berreskuratzea.

L.C.: Nik ez dut erronka zailik eduki, orain arte. Hazi naizen giro horretan euskaraz bizi banintzen, zergatik kostatuko zait orain aldaketa hori egitea? Eguneroko jarrera aldatzea da, eta ez dut euskaraz hitz egin nahi egin behar dudalako, nahi dudalako baizik.

Hamaikakoan euskararekiko harreman desberdinak dituzuen hamaika pertsona zarete.

L.C.: Iruditzen zait oso polita dela aniztasun hori, bakoitza eremu desberdin bati dagoelako lotuta.

B.A.: Profil oso desberdinetako pertsonak gara, eta bat-batean aurkitzea kazetari batekin, abeslari batekin, kirolari batekin... eta denak kaxoi berean sartzea, nolabait... flipantea da. Talentu asko dago gure inguruan.

Euskaraldiko erronkarik nagusienetako bat da lehen hitza euskaraz egitea. Zein da zuen esperientzia horrekin?

L.C.: Niri ez zait batere kostatzen, eta bere egunerokoa euskaraz bizi duen jendeak euskaraz erantzuten du, noski. Iruditzen zait gizar-tean normalizatu behar dugula,



Hainbat herritar, Euskaraldiko txapak jartzen. JOSEBA PARRON

eta urte askotako lana izango da gaztelaniak «heldutasun» gehiago ematen duen ideia hori kentzea, ez duelako zentzurik: zergatik hitz egiten diegu haurrei euskaraz eta helduei gaztelaniaz?

B.A.: Nik euskaraz agurtzen dut ia beti, natural ateratzen zait. Kanpoan nenbilenean, hasieran ere euskaraz agurtzen nuen, horretara nengoelako ohituta, baina gero ohitura hori galdu nuen, noski. Jendearekin euskaraz hitz egiten hasten naizenean, saiatzen naiz elkarrizketa hori euskaraz izan dadin, biongatik, nik ere hobetu nahi dudalako.

“

BORJA AGOTE

DONOSTIAKO HAMAIAKAKOKO KIDEA

«Jendearekin euskaraz hitz egiten hasten naizenean, saiatzen naiz elkarrizketa hori euskaraz izan dadin»

Zertan laguntzen du Euskaraldiaren gisako ekimen batek euskararen erabileran?

B.A.: Beharrezkoak dira horrelako ekimenak, batez ere, gazteek

Geuria
MERKATUA
erosi euskaraz!
Mahala

MAHALA IZOZKIAK

GEURIA SUKALDEA

EUSKAL ELIKAGAIK

Boulevard 4, DONOSTIA (Sarriegi plazatik ere sarrera du) T. 943 062 694



Donostiako Hamaikakoko kideak, martxoan egin zuten aurkezpenean. © INAXIO ESNAOLA

eskolan ikasten dutelako baina helduok horrelako helduleku batzuk behar ditugulako, hitz egiten jarraitzeko eta ez ahazteko euskara hor dagoela.

L.C.: Euskara fokuan jartzen du egitasmoak. Gaur egun, hainbeste zarata dagoen gizarte honetan, hizkuntzari berari buruz hitz egiten da komunikabideetan, eskoletan, merkataritza guneetan... eta hori oso garrantzitsua da.

Euskaraz hitz egiten dugunok gara, askotan, hitz egiten saiatzen direnak epaitzen ditugunak. Bat zatozte horrekin?

L.C.: Noski, eta ez dago ondo. Pertsona hori esfortzu bat egiten ari da, eta, batzuetan, ez dugu baloratzen. Giroak eta komunitateak asko laguntzen du.

B.A.: Nik ez dut pertsona horri buruz ezer txarrik pentsatzen, baina, segituan eta nahigabe,

gaztelaniara jotzen dut horrelako kasuetan, eta horrek ez du laguntzen. Eta egiten dut pertsona hori deseroso senti ez dadin, baina, hala ere, gaizki egiten dudala pentsatzen dut. Agian, pertsona horrek kontrakoa nahi du: guk euskaraz egiten jarraitzea.

Zein aholku emango zenikete 'belarriprest' bati?

L.C.: Lotsa alde batera uzteko eta Euskaraldia gogotsu hartzeko.

B.A.: Ikusteko filmak euskaraz, entzuteko irratia, hitz egiteko kateak, eskaintzeko denbora. Euskaraz jakitea eta euskaraz hitz egitea altxor handia da, eta hizkuntzaren parte izatea oso harro sentitzeko zerbait da.

Zein da euskararen egoera Donostian, zuen ustez?

L.C.: Euskaraldiko helburuak ez dira berak Hernanin edo Donostian, datuak, giroa eta ohiturak

ere ez direlako berak. Nik uste dut Donostian, orokorrean, jendeak ez duela euskaraz hitz egiten gaztelania unibertsalagoa delako, eta hori errealitate bat da. Ez da erraza, baina gure aldetik jarri behar dugu. Gure identitatea da, eta hizkuntza da identitate bat markatzen duena.

B.A.: Ni mugitzen naizen eremuan (surfean eta kirolean), behintzat, nahiko indartsu ikusten dut. Surfaren munduan asko euskaldunak gara, kirol munduan ere bai... Agian, beste eremuetan ez hainbeste, baina nik ez dut balantzaren beste alde hori ezagutzen.

Donostian euskaraz bizi nahi badugu, zein iraultza txiki egin beharko genuke?

L.C.: Euskara normalizatu. Askotan, arazo handiena izan da ideologia zehatz batzuekin lotu dela, eta politizatu egin da. Donostian, aurreiritzi horiek guztiak alde batera utziko bagenu eta ez bagenu euskara talde txikietara soilik gerturatuko, normalizatuagoa egongo litzateke. Euskal Herrian hizkuntza bat dago, eta denok hitz egin dezakegu. Eta hori da euskaldun guztiok bateratzen gaituen elementu bakarra.

B.A.: Benetan iraultzailea den zerbait. Euskaraz dakigunok sarritza, euskarari hauspoa ematen jarraitzeagatik. Kafetegi batean %10eko deskontua, edo %5ekoa autobusean, adibidez! Motibazioa falta da, eta horretan jarriko nuke fokua. ●



ZUHAITZTI
Eskola Publikoa

zuhaitzilhi.hezkuntza.net
012202aa@hezkuntza.net
943-89 9175



LEGAZPI 6
EUSKALTEGIA

Egunez egun euskara lagun



Guridi Maisua, Z/G, Antigua · Kanpandegi, 1, Parte Zaharra



943-2199 07



legazpi6@legazpi6.eus

Bihur zaitez AHOBIZI HITZEZ Euskaltegian



hitzez
euskaltegia

GROS-en
ikas ezazu



Kolon pasealekua, 5 behe
GROS - 20002 DONOSTIA



943-27 81 55



hitzez@hitzez.eus



www.hitzez.eus

Euskaraldiko egitarauak

MAIATZAK 10

Gros

11:30 Txapak jasotzeko eta izena emateko informazio gunea, Nafarroa Beherea plazan.

Gros

16:30 Dantza emanaldia: Zuhaizti eskolako dantza taldea, Nafarroa Beherea plazan.

Gros

17:30 Haurrentzat eta gazteentzat jolasak, Nafarroa Beherea plazan.

MAIATZAK 15

Martutene

16:30 Mural margoketa: auzolana, eskolako jolastoki handian.

Parte Zaharra

17:00 Haurren kantujira, Orixe ikastolatik hasita.

Intxaurreondo

18:00 Euskal tergoak, Gaztelekuan eta kultur etxean.

Gros

18:30 Kalejira musikatua auzoan zehar, Nafarroa Beherea plazatik hasita.

Intxaurreondo

19:00 Hasiera ekitaldia, kultur etxean.

Egia

19:00 Hasiera ekitaldia, Blas de Otero plazan.

Altza

19:30 Bertso saioa: Mantxi eta Julen Zulaika, Bizargorri tabernan.

MAIATZAK 16

Martutene

17:00 Eskulan kolektiboa, auzo elkartean.

Aiete

17:00 Euskaraldiko argazkia, Hiru Damatxon.

Amara Berri

18:00 Pintxo-potea, Euskaraokea eta koktelak, Ilunki tabernan.

Altza

18:00 Bingo musikatua. La Asuncion Ikastetxearen eskutik, Harria parkean.

Aiete

19:00 Bakarrikzeta: Bea Egizabal, kultur etxean.

Intxaurreondo

19:00 Antxuak balia: bertso musikatuak, Zulo Zahar elkartean.

Martutene

19:15 2. mintza-potea auzoko trikiti ikasleek girotuta, auzo elkartetik hasita.

Añorga

20:00 Hika tailerra eta gazte afaria, Gaztetxean.

MAIATZAK 17

Amara Berri

11:30 Haurrentzako ipuin kontalaria: Lur Korta, Probestu plazan.

Antigua

11:30-13:00 Erraldoien kalejira, auzoan zehar.

Amara Berri

12:00 Bertso saioa, Ikasbide Kultur Elkartean.

Intxaurreondo

12:00 Plaza dantzak, Sagastieder plazan.

Parte Zaharra

12:00 Kantujira, Parte Zaharrean zehar.

Intxaurreondo

12:30 Barre-potea txistulariek girotuta, Sagastieder plaza inguruan.

Parte Zaharra

12:30 Herri kirolak, Plaza Berrian.



Antigua

14:00 Bazkaria. Ondoren, tailerra familian: 'Goazen Euskara Lau Haizetara zabaltzera' (ekarri zabor poltsa handi bat).

Antigua

16:30-18:30 Txitarekin dantzaldia.

Intxaurreondo

17:00 Familiekin jolasak eta karaokea, haurtxokoan eta kirol elkartean.

Amara Berri

17:00-19:00 Hautxokoa eta Gaztelekua, Ferrerías plazan.

Parte Zaharra

18:00 Izendegiaren aldaketa, kalejira eta bertsoak.

Parte Zaharra

18:30 Udal txistularien erromeria, Plaza Berrian.

Añorga

19:00 Arkaitz dantza taldearen emanaldia, Añorgako pilotalekuan.

Antigua

19:00 Zezensuzkoa.

Parte Zaharra

19:30 Kontzertua: Kerobia, Antzoki Zaharrean.

Altza

20:00 Burdina Astintzen jaialdia: Asgarth, Elbereth eta Izan Bai. Larratxo Kultur Etxean.

Parte Zaharra

20:00 Erromeria, Trinitate plazan.

MAIATZAK 18**Parte Zaharra**

09:00 Goiz deia euskararen kantuekin, auzoan zehar.

Parte Zaharra

12:00 Kresala dantza eskola: haurren emanaldia, Plaza Berrian.

Parte Zaharra

12:00 Bisita gidatua: Euskararen Donostia, udaletxetik hasita.

Parte Zaharra

12:15 Ezohiko kontzertua udal txistulariekin, Plaza Berrian.

MAIATZAK 19**Altza**

10:00 Hasiera ekitaldia Altzako ikastetxe eta ikastolekin, Harrobieta plazan.

MAIATZAK 20**Parte Zaharra**

11:00 Mintzodromoa, San Telmo museoa.

Gros

18:00 Euskarazko Wikipedian idazteko ikastaroa, Okendo Kultur Etxean.

MAIATZAK 21**Amara Berri**

17:30-20:00 'Su artean, gure artean', Ikasbide Kultur Elkartean.

Amara Berri

19:00 Kantujira, Ikasbide Kultur Elkartetik hasita.

Altza

19:00 Turismo hutsala eta Txillardegi (eta Monzon) Bergaran liburu eta komikien aurkezpena. Tomasene Kultur Etxean.

Parte Zaharra

19:00 Hitzaldia: Mikel Zalbide, kriptan.

MAIATZAK 22**Intxaurreondo**

17:00 Liburu kutunen trukaketa, kultur etxean.

Intxaurreondo

17:00 Ginkana eta merendola, Bernart Etxepare plazan.

Martutene

17:30 'Su artean, gure artean', Txapel Aundi elkartean.

Intxaurreondo

19:00 Literatur solasaldia: Monogamoak, Iñigo Astiz, kultur etxean.

Altza

21:00 Andoni Ollokiegiren emanaldia, Bizargorri Tabernan.

MAIATZAK 23**Amara Berri**

17:30 Erraldoi eta buruhandiak dultzaienez lagunduta, Ferrerías plazatik hasita.



Abuztuak 31 kalea, 23
Parte Zaharra, Donostia
943-42 63 62
www.restaurantegandarias.com



Martutene

16:30 Martuko izarrak: euskaraokea eta disko festa, parkean.

Amara Berri

18:00 Eskuiraldia, Ilunkin.
Autoapaintze arigunea.
Kontzertua: Aiert.
Salsabatxatakuire eta pintxo-potea.

Intxaurreondo

19:00 Zineforuma: *Bidasoa 2018-23*, Zulo Zahar elkartearen.

Altza

19:00 Kantujira Herreran.

MAIATZAK 24

Parte Zaharra

9:30-13:30 Donostiako Euskaltzaleen Topaketak: *Harrera eta Euskara*, San Telmo museoa.

Aiete

10:00 Herri kirolak, Jolastokian.

Egia

10:00-12:00 *Kantaldia 2025* tailerra, musika eta dantza eskolan.

Altza

12:00 Auditx Akular parkearen eguna, Porrotx eta bere lagunaren bisitarekin.

Aiete

12:30 Triki-poteoa, Jolastokian.

Aiete

14:30 Kuadrillen bazkaria, Jolastokian.

Altza

17:00-18:15 'Euskaraldia: Jolastuz euskara ikasi eta erabili', Altzako Gazte-lekuan.

Intxaurreondo

17:00 Hi Su Ta Ke (haurren kontzertua), Zulo Zahar elkartearen.

Amara Berri

17:00 X. AB Krossa: haurren jolasak eta dortsal marrazketa, Probestu plazan.

Aiete

17:30 Giza probak, Jolastokian.

Intxaurreondo

18:00 Euskal bingo musikatua, gaztelekuan.

Aiete

18:30 Zumba, Jolastokian.

Amara Berri

19:00 X. AB Krossa: helduen lasterketa, Isabel II.aren hiribidean.

Aiete

19:30 DJ-ak, Jolastokian.

Amara Berri

20:30 X. AB Krossa: kontzertua, Probestu plazan.

MAIATZAK 25

Intxaurreondo

12:00 Ibilaldia: bidean dauden auzoko historiaren aztarnak, Ategorrietako tren geltokitik.


Parte Zaharra

12:00 Bisita gidatua: *Bertsolaritza Donostian Barrena*, Antzoki Zaharretik.

Intxaurreondo

14:30 Auzo bazkaria, Intxaurreondo Sagardotegian.

i
Gehigarri honen edizioa ixteko momentuan, auzo batzuetako egitarauak guztiz fintzeko zeuden, beraz, baliteke jarduera batzuk kanpoan gelditu izana.




Gora euskara!

Jose txo Erregezaintza 4,
Irurtia Balerdi DONOSTIA
Tel.: 943-21 49 89

Gora euskara!

MIKEL

Harategia · Urdaitegia



Juan de Garai kalea, 1, 20008 Donostia
943-21 29 63 · 615-75 26 33



Matia Kalea 35, Antigua
www.trikuharrijatetxea.com



ILAZKI

EUSKALTEGIA

Euskara
ahoa

HABEk diruz lagundua

HABE



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

www.ilazki.eus · Konstituzio plaza, 5 · 943-42 49 10 · ilazki@ilazki.eus

Parketarrak

Egunik onenak,
elkarrekin euskaraz jolasean

DONOSTIA

Maiatzaren 5etik 23ra

Asteko egun guztietan,
auzoetako parke eta plazetan.

Adina:

Zabu-Zibu, 3-5 urte.

Txirrintxon 6-9 urte.

Ordua eta lekuak:

www.donostiaeuskaraz.eus



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

hezen
aisialdi
euskaltzalea

EUSKARA ETA KIROLA *beti lagun*



2025EKO
MAIATZAREN 15ETIK 25ERA

EUSKARALDIA

*Elkar mugituz
egingo dugu*